

Zaila izan deza... [ehm] daiteke

Euskalduntze prozesuko adizki jokatuaren gramatika- eta denbora-ezaugarriez

Juan Abasolo · 2016/06/11

Sarrera

Euskal adizki jokatuak hainbat komunztadura-informazio eta gramatika-informazio dauzka. Zailtasun adierazle batzuk aztertu ditugu, euskalduntze prozesuan ari den ikastunak informazio guzti horren konputua egiteko orduan sortzen dituenak. Zailtasun adierazletzat zailantza adierazleak eta errore gramatikala hartu ditugu. Konplexutasuna

kalkulatzeko konstruktua bat eregi dugu ezaugarri morfologikoetan oinarrituta. Euskalduntze prozesuaren amaieran-edo ari den ikastun baten berbazko ekoizpena aztertu dugu; horretarako, urtebeteko epean –B1 mailatik C1 mailarako bidea egiten duen bitartean– aurrez prestatutako 10 monologotan ekoizitako adizki jokatu guztiak baliatu

ditugu. Aldagai batzuen arteko korrelazio estatistiko esanguratsua aurkitu dugu. Horrezaz gain, errore gramatikaren eta adizki jokatuaren aurreko etenaren artean ere aurkitu dugu korrelazio esanguratsua.

Oinarritzea

Aurrekariak

Kormosen (2006) lanari jarraituaz , honako zailantza adierazleok etiketatu eta aztertu ditugu lan honetan:

- adizkiaren aurreko etena
- errepikapena
- autozuzenketak
- osatu gabeko berbakiak agertzea


Errore gramatikala denetz zehazteko orduan, EGLUk zehazten duen arautegia erabili dugu, Euskaltzaindia 1987. Konplexutasun gramatikala kalkulatzeko orduan, konstruktua bat eregi dugu: *l* balioa gehitu dugu aditz-paradigmaren forma kanonikoari gehitutako morfema edo aldaketa bakoitzeko.

$$da = 1$$

$$nioke = 4 = 1(zer / nor) + 1(nori) + 1(nork) + 1(alegialdia)$$

Ikerketako aldagaiak

- Errore gramatikala eta ratioa
- Adizkiaren aurreko etena eta ratioa
- Adizkiaren unean egindako autozuzenketa eta ratioa
- Adizkiaren unearen
- aurreko berban egindako autozuzenketa eta ratioa
- Konplexutasuna konstruktua
- Grabazioen zenbatgarren eguna
- Adizkiaren erabilera frekuentzia corpusean



Hipotesia

Zailtasuna erakusten duten aldagaien distribuzioak aldatuko dira konplexutasun gramatikala azaltzen duen aldagaiaren balio desberdinetan.

Metodoa

Transkripzioak egiteko, CHILDES-LIDES(MacWhinney, 2000) kodearen egokitzapena eraiki dugu propio Abasolo (2015), berbazko ekoizpenaren analisirako PRAAT (Boersma and Weenink, 2001) softwarean erabiltzeko. Hipotesiak aztertzeko estatistika deskriptiboa erabili dugu; horretarako, LibreOffice Calc eta R lengoaia erabili ditugu, RStudio (2014) aplikazioaren bitartez.

Aurreneko trataera ratioak sortzea izan da:

$$\frac{\text{ikertutako aldagaiaren frekuentzia}}{\text{adizkiaren frekuentzia}}$$

Bigarrenik, kontraste estatistikoak egin ditugu, konplexutasun gramatikala adierazi behar luketen aldagaien eta ekoizpen zailtasuna erakusten duten aldagaien artean. Kendallren τ korrelazio indizea ala Mann–Whitney–Wilcoxonon *U*-Testa kontrasteak erabili ditugu, aldagaien ezaugarrien arabera.

Emaitzak eta ondorioak


Kontrasteak aldagai dikotomikoekin

Zailtasuna erakusten duten aldagaiak bere horretan hartu eta *Konplexutasuna v1* aldagaiarekin alderatuta, emaitza esanguratsuak ikusten dira errore gramatikal eta adizkiaren aurreko etenean. Ez, berriz, autozuzenketarekin. Horretarako Mann-Withney-Wilcoxonon *U*-testa kalkulatu dugu aldagaiontzat

Aldagaia	<i>U</i> -testa	p-value
Erroreak	6061.5**	.007206
Etenak	7792.5*	.01839
Autozuzenketak 0n	2706.5	.4076
Autozuzenketak 1n	7688.5	.8111


Taula : *U*-test *Konplexutasuna v1* konstruktuearekin

Ikus-azterketa bat eginda, ematen du autozuzenketa batek ere erlazioa erakusten duela, esanguratsua denik ezin esan arren.



Irudia : Corpusaren distribuzioa Konplexutasuna v1 eta zailtasuna erakusten duten aldagaien arabera

Ratioen arteko korrelazioak



Irudia : Ratioen arteko korrelazio matrizea Kendallren τ

Irudian ikusten den moduan, Konplexutasuna kalkulatzeko eregi dugun konstruktua korrelazioa estatistikoki esanguratsua du zailtasun adierazleen ratioekin hartu ditugun guztiekin, %95 konfiantza mailatik gora. *Frekuentzia* aldagaiak ere badu korrelazio esanguratsua zailtasun adierazleekin. Ez du, baina, *Eguna* aldagaiak. Beste korrelazio esanguratsu aipagarri bi ere aurkitu ditugu matrizean:

- Frekuentzia eta Konplexutasuna v1 aldagaien artekoa
- Errore gramatikala eta adizki jokatuaren aurretik etena egitearen artean

Beraz...

Eztabaidarako

- Korrelazio baxua ikusten da adizkia jokatzear agertzen diren zailtasun adierazleak adizkiaren konplexutasun ezaugarrien artean; konplexutasuna guk kalkulatu dugun moduaren arabera eta aukeratu ditugun zailtasun adierazle

Kontaktua



Juan Abasolo
UPV/EHU
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola
Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila
94 601 46 24
juan.abasolo@ehu.eus
euskara2h.wordpress.com
Telegram @JuanAbasolo
Twitter @JuanAbasolo1

